BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

66

ERABAKIA, 2014ko abenduaren 17koa, Merezimenduak Baloratzeko Batzordearena, 2014ko ekainaren 4ko Aginduaren bitartez deitutako farmazia-bulegoaren titulartasuna eskuratu eta botika bat Hernani eremu farmazeutikoan esleitzeko dena.

Osasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 4ko Aginduaren bitartez deitutako farmazia-bulegoaren titulartasuna eskuratzeko eskabideak baloratzeko Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu 2014ko abenduaren 17an egindako bileran:

Lehenengoa.– Aipatu aginduaren bidez irekitako prozeduran parte hartu zutenek lortutako puntuazioak jasotzen dituen behin-behineko zerrenda onartzea (eranskinean jasotzen da).

Bigarrena.– Lehiatzaileetariko batzuen izenarekin batera agertzen den zenbakizko kodeak honako hau esan nahi du:

– Behar bezala konpultsatu ez diren eta/edo konpultsatu ez diren kopiak erabili dira merezimenduak –guztiak edo batzuk– alegatzeko.

Hirugarrena.– Interesdunei hamar egun balioduneko epea ematea beharrezko jotzen dituzten erreklamazioak aurkez diezazkioten Balorazio Batzordeari, ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Aipaturiko dekretuaren bidez, farmazia-bulegoak sortzeko, lekuz aldatzeko, ixteko eta jardunean aritzeko prozedurak arautu ziren.

Aurreko paragrafoan ezarritako epean, zenbakizko kodeak adierazten duen dokumentazioa aurkeztu ez duten interesdunei behin-behineko puntuazioa gutxituko zaie, behar bezala egiaztatu ez duten horretan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 17a.

Balorazio Batzordeko lehendakaria,
M.ª ASUNCIÓN CELIGUETA CRESPO.